

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Atzerrian praktikak egindako LHko ikasleen % 35k enplegu-eskaintza bat jaso du

Iribas kontseilariak diplomak banatu dizkie iragan ikasturtean beren prestakuntza Europar Batasuneko enpresetan osatu zuten ikasleei

Viernes, 12 de septiembre de 2014

Iragan ikasturtean praktikak Europako beste herrialde batzuetako enpresetan egiten zituzten Lanbide Heziketako (LH) 116 ikasleren % 35k, bertan lan egiten jarraitzeko enplegu-eskaintza jaso dute beren egonaldia amaitzean. Hezkuntza Departamentuaren aburuz, zifra horrek Nafarroako LHren "kalitatea" agerian uzten du.



Iribas kontseilaria, praktikak Europako enpresetan egin dituzten ikasle batzuekin.

Arlo horretako kontseilari José Iribasek ikasle-talde bekadun bati harrera egin die (praktikak egin ondoren) Hezkuntzako egoitzan, eta ikasle horiei atzerrian izandako egonaldia ziurtatzen duen diploma banatu die.

Nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartutako 116 ikasleetatik, 53k Italian egin dituzte praktikak, 49k Erresuma Batuan, 8k Irlandan, 5ek Austrian eta 1ek Frantzia.

Esperientziari esker, ikasleek beren ezagutza teknikoak perfektionatzear gain, beren hizkuntz gaitasunak ere perfektionatzen dituzte, beren lanbide-gaitasunak hobetzeko asmoz eta, hala, lan-munduratzeko aukerak bultzatuz, Nafarroan nahiz harrera-herrialdeetan.

Hiru hilabeteko egonaldiak Hezkuntza Departamentuk kudeatzen ditu Erasmus eta Leonardo Da Vinci Europako programen esparruan.

Askotariko ikasleak

Programa horietan parte hartutako ikasleek 19 lanbide-familiatako prestakuntza-zikloak ikasi dituzte Foru Komunitateko 18 ikastetxetan.

Espezialitateen arabera, azpimarratu behar dira: administrazioa eta kudeaketa (18 ikasle), instalazioa eta mantentze-lana (13), arte grafikoak (12) eta komunitaterako zerbitzu sozio-kulturalak (11). Atzetik datoz: osasuna (8), jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak (7), arte plastikoak eta diseinua (6), merkataritza eta marketina (5), fabrikazio mekanikoa (5) eta egurra, altzaria eta kortxoak (5).

Gainerakoek honako hauei lotutako ikasketak egin dituzte: nekazaritza-sektorea (4), informatika eta komunikazioak (4), ibilgailuen

garraioa eta mantentze-lana (4), irudi pertsonala (3), kimika (3), eraikuntza eta obra zibila (2), elektrizitatea eta elektronika (2), energia eta ura (2), eta ostalaritza eta turismoa (2).

Ikastetxeei dagokienez, hamahiruk Iruñeko Arte Eskolan ikasi dute; hamabik Donapea LHIn (Iruña); hamaika ikaslek María Ana Sanz IBan (Iruña); bederatzik Corellako Arte Eskolan; zortzik Sanitaria IBan (Iruña), ETI LHIn (Tutera) eta Hezitzaileen Eskola IBan (Iruña); eta zazpik IES Sierra de Leyre LHIn (Irunberri) eta Lizarra LHIn.

Bestalde, sei ikaslek Tafalla LHIn eta Energia Berriztagarrien Goi LHko IBan (Imarkoain) ikasi dute; bostek Virgen del Camino LHIn (Iruña); lauk Nekazaritza eta Basozaintzako IBan (Iruña) eta Ibaialdi-Burlata BHIn (Bera); bi ikaslek Lekaroz-Elizon LHIn eta San Migel BHIn (Altsasu) eta beste batek San Juan BHIn (Iruña).